

Gonzalez aholkulari

TXILLARDEGI



ORAINTXE entzun dut berria irratietan (VII-9): *Gonzalez Moskun dago aholkulari.* «Transizioa» honen ongi bideratu ondoren, maisu

bihurru omen da maila internazionalen. Eta, beti ere irratiek esan dutenez, bi alorretan azaldu dio Gorbaxofi gauzak nola egin behar diren: alderdi bakarraren desegintza baketsuarenean, batetik; eta arazo nazionalen desentralizazio abilaren bitartez itereara ematearenean.

Lehenengoa nola egin, ederki ikusi dugu hemen-gook: alkandora urdina etxeko alasa zaharretan izkatuta; eta, besterik gabe, eta ez projektuz eta ez asmoz zipitzik aldatu gabe, beste alkandora bat jantzi, beste txaketa bat ere bai, jakina, eta «demócrata de toda la vida» bihurtu.

Bigarrenari buruz, berriz, hau esan bide dio: «hik eman zak kafea guztiztatu, eta kitto». Oturuntza bakarraren sistema; gure gazteango astelehenetan egin ohi zen «plato único» famatua. Nondik nora honi babarrunak eta hari porrusalda? Hori falta genuke!

Jakina: beheitikoak jota dagoenari ongi datorriko arzoa jatea; baina hestu dabilenari... Eta diabetikoari ere gaizki bide datorriko txokolatzeko mouse delakoa jan beharra. Baina dietetiko berri hauek hori diote: «denok gara bardinak». Gartzelari nagusari ongi doakiona, presoei ere bai. Autodeterminazioa eta Imperialismoa elkarren ukara bera dira; garbia eta zikina elkarren aurkakokoak diren moduan, Estatuak, bai hemen eta bai Ekialdean, *Autodeterminazioaren* gainean eraiki daitezke: *al Imperialismoaren* gainean. Gonzalezek, aisa soma zitekeenez, bigarren bidea proposatu dio Gorbaxofi.

Eta hori, jakina, «Demokrakzioaren» izenean.

EL SOL

Jugoslaviako desafio konstituzionala

Jugoslaviak —eta Europako segurtasunak orohar— aurre egin behar dio arazo bikoitzari, alegia, egungo estatu batasunarekin bateraezinak diren nahi independentisteki eta joera zentripetu batzuei, Balkanetan aldizka sortzen diren krisien sorrerak baretu eta moztuko dituztenak. Eta probabilitate handia dago Konstituzio proposamen berriak egiteko, oraindik probatu gabeak, bi beharrezan horiek ere berean asetzera ahalbideratuko dutenak.

JAVIER GARCIA

FERNANDEZ / 1991-VII-9

EL CORREO ESPAÑOL

Julio Anguitaren ilajea

Oraingo honetan esan du, beti argudiaketa eta pentsamendu lineare beretik, Mendebaldearen laguntza banatzearen aldeko bi

errepublika jugoslaviarrei, Euskadi eta Kataluinaren independentziaren hasiera izango litzatekeela.

Baieztape hori larria baino gehiago, pentsatu gabe esandakoa da. Lehenik, Euskal Herrian eta Kataluan minoria gutxi batzuk bakarrik planteatzen dutelako beraien independentzia. Bigarren, Jugoslaviako kasua Espainiakoarengandik oso desberdina delako.

PEDRO VILLALAR / 1991-II-9

EL MUNDO

Guztion beldurra oraindik sortzeke dagoenagatik

Auñamendik bete nahi duen espazioa da, «beste batzuen laguntzarekin» —ez zehaztu arren norekin—, hain zuzen ere, PSOEek bete beharko lukeena. Euskadiko iharduera politikoan, bere kide katalanek bezala jokatuko balu Autonomi Elkarte horretan.

Ikusi beharko da zer aurpegi jarriko duen Carlos Garaikoe-



JESUS FERRERO / EL MUNDO / 91-VII-9

txeak, autodeterminazio eskubidearen defendatzailea, Kepa Aulestiak esaten dionean autodeterminazioa dinamiko dela eta ez estatikoa, eta euskaldunak autodeterminazioa eskualdeekin lortu zutela.

CARMEN

GURRUTXAGA / 1991-VII-8

ABC

Terra Lliure eta gure «kroaziarrak»

Nazioarteko egoerak eragiten du eskemaren eraldaketan. Ju-

goslaviaren desintegrazioak sortu du aurrekasurik. Mendebaldeko potentziek, hasieran zalantzakor agertu ondoren, Eslovenia eta Kroaziaren berreizketa bermatzearen alde azaldu dira.

(...) Madrilke eskuak garbitzeko joera du. Ona da Serbieraz ez jardutea Kataluan, baina espainiarrak egungo bere katalan kokaeragatik egin bidezko ke-xuek adierazten dute, Gobernuak axolagabekeria gutxiagorekin hartu beharko litzatekeela.

LORENZO

CONTRERAS / 1991-VII-9

Bi gauza falta

EUSEBIO OSA



EGUARDIA da. Bi neskatila dotozki korrika, kalea gurutzatuz. Harrapatu nauten: *El Mundo* ikusi didate gal-tzarpean, erosi berri berria. Hau bigarrena da. Lehena, goizeko lehen orduan erositako eta euskaraz irakurria dut. Gordean daramat, beraz. (Beloki jaunak ni ere sartu ote nau euskarazko egunkaria lehen egunkari luketen 2.000 haien artean). Inkestalarik dira.

Aurrera: — Hemen publikatzen diren egunkari hauen artean zein duzu gustokoen?

— Aizue, baina hemen bat falta da. EGUNKARIA ez dut hemen ikusten.

— Aa... bai, arrazoia duzu. Guri hau eman digute eta...

Badakit *El Mundok* Bai esan diola EGUNKARIARI. Bai esan dio eta batzuren zitalkeria salatu du. Baina inkesta hau prestatu dutenak ez dira enteratu euskarazko egunkariarik badagoenik.

— Zer duzu gustokoen, informazio lokala, nazionala...

— Aizue, zein nazio da hori?

— Ba... uste dugu Espainia izango dela, baina jakina...

— Ondo uste duzue. Baina hor nazio bat falta da. *El Mundok* bere sailetan, Euskadiako eta Espainiako banatzen ditu. *El Mundok* bere inkesta-prestatzaileak erreziklatu beharko ditu, hurrengoan bi detailetxo horiek ez daitezke falta izan.

Daukagunaren eta garearen ukoa jasaten segi beharko dugu. Halere, uko hori etxeokogandik, hots *El Mundoko* baino etxeokogo ditugunengandik, jasotzen denean, askozaz mingarriagoa izan ohi da.

ZUZENDARIARI

Koalizio Saindua

Ez, ez pentsa izenburu horrezaz PNV-PSOEek osatua aipatu nahi dudunik. HBz ari naiz, zeren aspaldion agertu izan diren zenbait idazki irakurritu bai bait dirudi HB hori Andre Mari Zuria baino zurixago ta garbixago dela.

Ez dakit baina, Gangoatar baten gutunak eta Hernani aldeko beste bik aintzizako «Punto y Horan» argitara ohi zituzten idazki panfletario haiek ekarri dizkidate gogora. Ikusi nahi ez duena baino itsu itsuagorik ez omen dago ta idazle-artikulugile batzuek trabeak dira beren alderdiaren okerrak besteei bizkarreratzen.

Gaiztoak, berriz ere, EAKoak. Bi suen erdi erdian direnak, hain zuzen. Espainolisten ustez HBren aldekoak direlako eta HBkoen ustez, bada, beraiek ez diren guzti guztiak gaizto gaiztoak direlako. HBkoek iradokimen zerutiarrez bideraturik iharduten dute, ez da hala? Baina politikan ari denak eta ez denak, noiz-bait, eskuak busti/zikindu behar ditu. Orain eta hemen, Gipuzkoan zein Nafarroan HBren esku dago gobernu berrien kolorea hautatzea. Daltonismoak jota ote daude? Negar/irri eragingarria, «patetikue», EAKo «baseei» egin ohi dizkiguten deiak. Sinesteak ere lana duelako gu abertzaletzat gaituztena. Eskerrik asko!

Lerro laburrok idatzitakoan Murua «ohia» dela entzun berri berria dut. HB, beraz, «PSOEren morroi bihurtu da». Eskerrak, bertzenaz Imanoli botoa emanda

zer eskubidez harrikatuko lukete La Salve egunean?

Azkenik, eta HBren arrazoiemenduari atxikiz, EGUNKARIAK bihar honako izenburu hau idatzi behar luke: «EAJK PSOEren neurriko politika egin dezala diputazioan utzi(ko) du HBk».

ENEKO IÑARRONDO LAUDIO

Kuerda gehiegi Cuerda-erentzat

Kazetari politiko paktistak eta, nola ez, PNVko buruzagiak jo eta ke ari dira bitzantzen buruak nahastean, justifikatu nahian PSOEren egin dituen paktuak Maiatzeko hauteskunde ondoan.

Harrigarriena da sal-tzen zaien gezurra jende ugariak onartu egiten duela eta ikusita ziria sartzeak nolako fruituak ematen dizkien, pentsatzeak da horrela jarraituko dutela.

Labur esanda, Arabako Diputazioako lau euskal alderdien junterok (zoritarrez lauei ezin diegu deitu abertzale) alderdi espainolistenak baino gehiago dira eta berdin gertatzen da PSOEri PNVek eman dizkien alkatetzak, besteak beste: Donostia, Barakaldo, Eibar, Irun, Errenteria, Portugalete, Santurtzi eta Arrasate, azkenengo hau lortu ez badute ere.

Arestian agertutakoaren arabera zalantzarik ez dago kuerda garestiegia dela Cuerda jaunak Gasteizko Udaltzaia mugiarazteko eta hori ukazina denez, argi dago PNVren helburua

abertzalei beste astindu bat ematea besterik ez dela izan, bere politiko profesionala interes ekonomikoan truke.

KELMEN SARASOLA BILBO

Oharra:

Erizti ezberdinek toki izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia argi eta garbi agertu beharko dira gutunean. Laburtu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE
Gereenta: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI, LUZIEA ETXEZAHARRETA, INAKI URÍA
Publizitatea: KORNELIO ROTETA



Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK
Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Arabak: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1 eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11